

TEKNOLOGIA

Eduki moderatzaileen oreka mentala



DIANA FRANCO

Bada, egun ditugun sare sozialetan, oso ezaguna ez den lan bat, eduki moderatzailearena. Dirudienez, eremu digitalean dena ez dago pentsatzen dugun bezain automatizatuta, zenbait eremutan behintzat. Badira makinak ongi bereizten ez dituzten edukiak: bortizkeriarekin loturikoak batez ere, sare sozialen jabeentzat buruhauste, bortizkeria zabaldu nahi duen eta algoritmoak zirikatzen ikasi duen jendea badagoelako. Jokabide horiek eragozteko, eremu digitaleko korporazio handiek eduki moderatzaileen lana sortu dute. Eduki moderatzaileek, egunero, lanaldi osoan bortizkeria oso grafikoki azalera duten edukiak ikusi eta zentsuratu behar dituzte. Lan hauetarako, askotan garapen bidean dauden herrialdetako pertsonak kontratatzen dituzte. Berritako "mundu garatuetako" hondakinak, garatzeko bidean dauden herritako gizarteetan zabalitzen ari dira.

Azken urteetan lan hau existitzen dela ezagutu dugu, eduki moderatzaileek salatu dutelako euren egoera mentala asko kaltetu dela.

Ba al dago adimen artifizial baten aukera, mundu digitalean ikusi nahi ez duguna eragotziko duena? Noraino al dendo gaitu horrek gizakion izaeraren errealitatea ezagutzetik? Gizakion burua errealitate horretatik babesteak noraino ez gaitu ahulago bihurtuko elkarrekin ekiteko?

Nire bulegoan, emakumeen bortizkeriaren kontra lan egiten duen emakume talde oso interesgarria dut. Bortizkeriaren eremu guztietan lan egiten dute: legezkoa, emozionala, gizarteratzeari loturikoa...

Beharbada, emakume horien eredu aintzat hartuz, moderatzaile eta algoritmoen bidez arazoa ezkutatu beharrean arazoa dagoela gizarteratu beharko litzateke, eta arazoa aurrez aurre borrokatzeko bideak sortu beharko litzateke korporazioek. Beharbada. ●

NAZIOARTEA



JIM LO SCALZO / GETTY IMAGES

Kalean otso, etxean...?

AXIER LOPEZ

Presidente bat [Trump] prest badago, gezurren eta engainuen bidez, bere jarraitzaileak gerra zibilera bultzatzeko, horrek dakarren giza kostua kontuan hartu gabe, zer gehiago egin lezake bera berriro [presidente] aukeratzen badute?", adierazi du Jason Van Tatenhovek 2021eko urtarrilaren 6an AEBetako Kapitolioari egindako eraso ikertzen ari den batordearen aurrean. Van Tatenhove, The Oath Keepers-eko kide eta bozera-maile ohia da, zibil armatuz osatutako eskuin muturreko talde supremazista bat. Izan ere, azken asteotan jakitera eman dute Trump eskuin muturreko taldeekin harremanetan jarri zela erasoaren aurreko egunetan.

Donald Trumpen gobernuko Segurtasun Nazionalako aholkulari ohi John Boltonek iradoki du presidente ohiak ez zuela behar besteko gaitasunik kontu handiz planifikatutako estatu kolpe bat gauzatzeko. Gaineratu duenez, kapitolioaren kontrako eraso "ez zen gure demokraziaren aurkako eraso izan. Berak bandaloak askatu zituen Kapitolioan, ez dago zalantzarik, baina ez Konstituzioa boteretik kentzeko, berarentzat denbora erosteko baizik".

Halere, horiek ez dira izan zalaparta eragin duten adierazpenak. AEBek beste nazio batzuetako herritarren bizitzetan etengabe egindako esku-sartzea salatzen dutenei arrazoia eman die Boltonek: "Estatu kolpeak planifi-

katzen lagundu duen norbait izanik, ez hemen, baizik eta beste leku batzuetan, badakit lan asko egin behar dela". Boltonek Segurtasun Nazionalako aholkulari gisa jardun zuen 2018 eta 2019 artean, harik eta Trumpek kargutik kendu arte. Bolton ezaguna da sionismoaren aldeko bere jarrerengatik, baina bereziki Saddam Hussein boteretik kentzeko Irakeko 2003ko gerraren sortzailetako bat izan zelako, suntsipen handiko armen gezurra haizatu zuenetako bat izan baitzen. George W. Bushen agintaldian NBEn enbaxadore ere izan zen 2005etik 2006ra.

2019ko Venezuelako krisi politikoa zehazki aipatu du Boltonek, oraindik Segurtasun Nazionalako aholkulari zela gertatutakoa. Urte horietan AEBetako gobernuak izan zen Juan Guaidóren figuraren sortzaile eta sustatzaile nagusia. AEBek emandako nazioarteko babesari esker, Guaidók bere burua aldarrikatu zuen Venezuelako presidente gisa, hautestontzietatik igaro gabe. Herritarrek aukeratutako Venezuelako gobernuaren aurkako kolpe horrek porrot egin zuela onartu du Boltonek elkarrizketan.

AEBek historia luzea dute demokratikoki aukeratutako gobernuen aurka laguntza militarra ematen, finantzatzen, antolatzen eta estatu-kolpeak aktiboki sustatzen. Eta beharbada, kolpeak antolatzen dituen herrialde batek ez luke hainbeste harritu behar hori bera etxean bertan gertatu denean. ●